# Garaiko Foroaren Akta

## *Acta del foro de Garai*

| Data/*Fecha:* | Ordua/*Hora:* | Lekua/*Lugar:* |
|---|---|---|
| 29/10/2014 | 19:15-20:05 | Udaleko Pleno Aretoa/ *Salón de Plenos de Ayto.* |

| Udaletxea/*Ayuntamiento* | Herritarrak/*Ciudadanía* | Aholkularitza enpresa/*Empresa consultora* |
|---|---|---|
| • Gontzal Sarrigoitia (Alkatea/Alcalde)<br>• Jokin Arregi (Zinegotzia/Concejal)<br>• Lazaro Milicua (Idazkaria/Secretario)<br>• Itxaso Zabala (Administraria/ Administrativo) | • 3 herritar / 3 ciudadanos/as | • Loinaz Azurmendi (Siadeco) |

### 1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Aholkularitza enpresako teknikariak hasiera ematen dio Foroari bertaratutakoei ongietorria eta eskerrak emanez. Jarraian aurkezpenak egin eta saioari hasiera ematen zaio. Bilera Tokiko Agenda 21aren eremuan kokatzen da. Eguneko gai-zerrenda eta foroaren helburu nagusiak aipatzen dira.

### 1. Bienvenida e introducción al Foro

El técnico de la empresa consultora comienza la reunión dando la bienvenida y agradeciendo a los presentes su asistencia. Seguidamente, se realizan las presentaciones pertinentes y la introducción al foro. A continuación se contextualiza el encuentro dentro del marco de la Agenda Local 21. Se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos del foro.

### 2. Tokiko Agenda 21 eta herritarren parte-hartze foroa

Gaiaren kokapen modura, Tokiko Agenda 21aren xede eta irismenak aipatzen dira eta partehartze foroaren helburu nagusia ere bai. Helburu hori TA 21aren prozesua Garaiko herritarrei zabaltzea litzateke, gaiaren inguruko eskaera eta proposamenak egiteko aukera emanez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio kanal iraunkorra ezarriz horrela.

### 2. Agenda Local 21 y foro de participación ciudadana

A modo de contextualización, se explica el significado y alcance de la AL21 y la razón de ser del foro de participación ciudadana, cuyo objetivo principal es abrir el proceso a la ciudadanía, dando opción a los/as vecinos/as de Garai a que realicen sus aportaciones, peticiones y propuestas en relación a actuaciones de desarrollo sostenible, estableciendo así un canal de comunicación directo entre la población y el Ayuntamiento.

### 3. Udalaren erantzuna azkeneko foroko proposamenei

2013. urtean izandako foroan herritarrek egindako proposamenak gogora ekarri eta Udalak 2014. urtean zehar proposamen horiei emandako erantzuna zein izan den azaltzen da banan-banan.

1. **Garai herrira iristeko seinaleztapena hobetu errepide sarean, bai Bilbao-Donostia norabidean baita alderantzizkoan ere.**

   Bizkaiko Foru Aldundiko, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraio Saileko Foru Diputatuarekin batzarra.

2. **Arroita eta Arroitabeitiko bide gurutzean ibilgailuentzako ispilua ipini.**

   Ez da ispilurik jarri, egin dena da lurrean stop-a jarri.

### 3. Respuesta del Ayuntamiento a las propuestas del último foro

A continuación, se recuerdan las propuestas realizadas por los/as ciudadanos/as en el foro del 2013 y, en relación con las mismas, se explican las actuaciones realizadas desde el Ayuntamiento a lo largo del 2014.

1. **Mejora de la señalización en la red de carreteras en el acceso al municipio de Garai, tanto en el sentido Bilbao-San Sebastián como en el sentido contrario.**

   Reunión con Itziar Garamendi diputada foral del Departamento de Obras Públicas y transporte.

2. **Colocación de un espejo en la intersección de las carreteras de Arroitia y Arroitiabeitikoa.**

   No se ha colocado un espejo pero sí un stop para minimizar el riesgo de accidentes.

3. **Aiartzako bus geltokian, markesina bat ipini.**

Aurrekontuak eskatuta dagoz baina Bizkaiko Foru Aldundiko baimena falta da.

4. **Kaskoko zati batean ur hornikuntzarako sarea berriztatu.**

San Migel kaleko 14. zenbakitik 19. zenbakirainoko ur sarea berriztatu da eta Elizarrabi inguruan ur sarearen beste zati bat ere.

3. **Instalación de marquesina en la parada de autobús de Aiartza.**

Solicitado presupuesto por parte del Ayto. pero falta permiso de la Diputación Foral de Bizkaia.

4. **Renovación de la red de abastecimiento de agua en una parte del núcleo urbano.**

Se ha renovado la red de abastecimiento de los portales 14 a 19 de la calle San Miguel, y otro tramo cerca de Elizarrabi.

## 4. Tokiko Ekintza Planaren garapena 2013an zehar

Jarraian aholkularitza enpresak eta Udaleko ordezkariek, Tokiko Ekintza Plana dela eta Udalak 2014 urtean zehar burututako ekimenak aipatu eta azalpenak ematen dituzte:

- **IRISGARRITASUN PLANA**

  Plana eguneratzeko, garapen eta idazketa lanen adjudikazioa egin da.

- **AUZO BIDEEN KONPONKETA**
  - 2014ko urtarrilean izandako euriteen ondorioz, Solabizker baserrirako landa-bidean gertatu den lur-jausiaren konponketa.
  - Arroitaganekoa eta Beratuerdikoa baserrietara doan bideen konponketa.

- **ARGITERIA PUBLIKOAREN HOBEKUNTZA**

  Udal Frontoiko eta Done Mikel Goiangeruko inguru artistikoko argiteria berritzea.

- **ERAIKIN PUBLIKOETAKO HOBEKUNTZAK**
  - Udaletxeko Pleno Aretoko argiak aldatu.
  - Kultur Etxeko beheko solairuko leihoak eta ateak berriztatu, aluminiozkoak jarriz.

- **KALEETAKO MANTENTZE-LANAK**

  Izandako lapurreten ondorioz, San Juan eta Milikua argiteriako kableak eta Kultur Etxeko erretenak berriro jarri behar izan dira.

## 4. Desarrollo del Plan de Acción a lo largo del 2013

Seguidamente la empresa consultora y la representación del Ayuntamiento, proceden a citar y explicar las actuaciones ejecutadas a lo largo del 2014 en relación al Plan de Acción Local:

- **PLAN DE ACCESIBILIDAD**

  Adjudicados trabajos de desarrollo y redacción para la actualización del plan.

- **ARREGLO DE CAMINOS VECINALES**
  - A raíz de las lluvias de enero del 2014, reparación del desprendimiento de tierras en el camino al caserío Solabizker.
  - Arreglo caminos acceso caseríos Arroitaganekoa y Beratuerdikoa.

- **MEJORA DEL ALUMBRADO PUBLICO**

  Renovación del alumbrado público del frontón municipal y del entrono artístico Done Mikel Goiangerua.

- **MEJORA INSTALACIONES PUBLICAS**
  - Renovación sistema de iluminación del Salón de Plenos del Ayuntamiento.
  - Renovación de puertas y ventanas de la planta baja de la Casa de Cultura.

- **TRABAJOS DE MANTENIMIENTO**

  Debido a los robos acontecidos, reposición de cables de alumbrado en San Juan y Milicua y del canalón de la Casa de Cultura.

- **UR HORNIKUNTZA SAREA HOBETZEA**

  San Migel kaleko 14. zenbakitik 19. zenbakirainoko ur sarea berriztatu da eta Elizarrabi inguruan ur sarearen beste zati bat ere.

- **MEJORA DE LA RED DE ABASTECIMIENTO DE AGUA**

  Se ha renovado la red de abastecimiento de los portales 14 a 19 de la calle San Miguel, y otro tramo cerca de Elizarrabi.

## 5. Mankomunitatetik sustatutako ekintza iraunkorrak

Mankomunitatetik jasangarritasun iraunkorrari lotuta bideratzen diren programa eta zerbitzuak aipatzen dira eta, eskualdeko herrietan eragiten duten neurrian, horien inguruko azalpenak ematen dira:

- ESKOLAKO AGENDA 21

  Eskualdeko ikastetxe desberdinetan Tokiko Agenda 21 lantzeko programa sektoriala da. Gaur egun, 16 ikastetxe daude sartuta. 2014ean programara ikastetxe berriak erakartzeko lana egin da eta ekintzak antolatzen jarraituko da (topaketak, bisitak...).

- HIRI HONDAKINEN BILKETARAKO ZERBITZUA

  Hondakin hauen bilketa sistema hobetzeko helburuarekin, bilketa, auzoetako sarreretan eratu diren irletetan zentralizatu da, edukiontzi mota desberdinak bertan ipiniz. Zerbitzu honen jarraipena egingo da eta hondakinak murriztu eta hobeto birziklatzeko herritarren sentsibilizazioa landuko da.

- AIREAREN KALITATEA ETA HONDAKINEN BILKETA

  Egur eta belarrezko bio-hondakinen kontrol eta kudeaketarako Ekintza Planaren egikaritza.

- EDUKIONTZI BERRIEN EROSKETA

  Errefusazko 48 eta paper eta kartoi bilketarako beste 10.

- SENTSIBILIZAZIO EKIMENA

  «Ecovidrio» sentsibilizazio jardunaldia uztailaren 28an.

- BESTELAKO ZERBITZUAK

  Aipatu hemen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Pertsona Nagusien Dinamizazio Zerbitzua, Droga mendekotasunaren prebentzio zerbitzua eta Behargintza.

## 5. Acciones sostenibles impulsados desde la Mancomunidad

Se mencionan y explica los programas y servicios ofrecidos por la Mancomunidad de la Merindad de Durango que, de forma directa o indirecta, inciden en los municipios de la comarca:

- AGENDA 21 ESCOLAR

  Es un programa sectorial para trabajar la Agenda Local 21 en los centros educativos de la comarca. Actualmente, 16 centros educativos están inmersos en este programa. En 2014 se ha tratado de atraer nuevos centros al programa y se seguirán organizando actividades (encuentros, visitas…).

- SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS

  Con el objetivo de mejorar el sistema de recogida de estos residuos, la recogida se ha centralizado isletas que concentran contenedores de distintos tipos a la entrada de los barrios.

  Se hará seguimiento de este servicio y se trabajará la sensibilización de la ciudadanía para reducir y mejorar el reciclaje de residuos.

- CALIDAD DEL AIRE Y GESTIÓN DE RESIDUOS

  Elaboración del Plan de Acción para el control y gestión avanzada de bio-residuos leñosos y herbáceos.

- ADQUISICIÓN NUEVOS CONTENEDORES

  48 contenedores de fracción resto y 10 para papel y cartón.

- ACCIÓN DE SENSIBILIZACIÓN

  Jornada de sensibilización «Ecovidrio» del 28 de julio.

- OTROS SERVICIOS

  Mencionar los Servicios Sociales de Base, Servicio de Dinamización de Personas Mayores, Servicio de Prevención de Drogodependencias y Behargintza.

## 6. 2014rako aurreikusitako ekintzak

Jarraian, 2015 urtean, Tokiko Agenda 21 proiektuarekin lotuta, Udalak aurrera eramatea aurreikusten dituen ekintzak aipatzen dira:

- **Ur sarea berriztatzen eta hobetzen jarraitu.**
- **Irisgarritasun Plana bukatutakoan, bertan jarritako beharrak ikusi eta zuzentzen hasi.**
- **Zubiaurre-tarren ondasunak eskuratu.**
- **Toponimia lanak.**
- **Hilerrian obrak.**
- **Frontoiko mantentze-lanak.**
- **Autobus zerbitzua zabaltzeko aukerak aztertu, autobus txiki baten bidez.**

## 6. Acciones previstas para el 2014

A continuación, se citan las acciones que el Ayuntamiento prevé que se van a llevar a cabo en el 2015 en torno a la Agenda Local 21:

- **Seguir renovando y mejorando la red de abastecimiento de agua.**
- **Una vez elaborado el Plan de Accesibilidad, analizar las actuaciones recogidas y comenzar con medidas correctoras.**
- **Adquisición bienes de los Zubiaurre.**
- **Trabajos de toponimia.**
- **Obras cementerio.**
- **Trabajos de mantenimiento frontón.**
- **Analizar la posibilidad de ampliar el servicio de autobús, mediante autobús pequeño.**

## 7. Foroko parte-hartzaileek proposatutako ekintzak

Herritarrei hitza ematen zaie Tokiko Agenda 21aren inguruan euren ekarpenak egiteko. Horren ondorioz, ondorengo proposamenak jasotzen dira:

- **WIFI sarean hobekuntzak.**

  Milikua auzoko klabe lapurretaren ondorioz antenak internet zerbitzua emateari utzi zion, bateria ez zelako kargatzen eta zirkuitua ere hautsi zelako. Milikuako antena konpondua dago jada eta Udalekoek uste dute zerbitzua laster berrezarriko dela. Dena den, herritarrengan zabaldua dago interneterako konexio eta nabigatzeko abiadura egokiak eskuratzeko zailtasunak; zentzu horretan ongietorriak dira zerbitzu honen inguruan izandako esperientzia positiboak (herritar batek Vodafone enpresarekin izandako horregatik edozein

- **Mankomunitateari kontsulta egin hondakin organikoen bilketa dela eta bosgarren edukiontzi edo/eta konpostajerako aukeren inguruan.**

  Hondakin organikoen bilketarako neurriren bat hartzea komenigarri ikusten dute herritarrek, nahiz eta horrekin batera kontzientziazio eta sentsibilizazio ekimenak ere aurrera eraman beharko diren herritarrengan.

## 7. Propuestas de acciones de los participantes en el foro

A continuación, se invita a los ciudadanos y ciudadanas a que realicen sus aportaciones en torno a la Agenda Local 21. Así, se realizan y recogen las siguientes propuestas:

- **Mejoras en el sistema WIFI.**

  A raíz del robo de cableado de Milicua la antena para internet dejó de dar el servicio al municipio porque la batería no cargaba. Y además se había roto el circuito. La antena de Milicua ya está reparada y desde el consistorio esperan que los problemas se solucionen con esto. De todas formas, la velocidad y la garantía de navegación en internet es un problema extendido a todos los vecinos y todas las posibles soluciones serán bienvenidas (una vecina comenta su buena experiencia con la empresa Vodafone; está muy contenta con el servicio que le ofrecen).

- **Consultar con la Mancomunidad las opciones de establecer algún sistema para la recogida de residuos orgánicos (sea quinto contenedor sean composteras).**

  Se ve conveniente hacer algo en relación a la recogida de residuos orgánicos, aunque para ello haya que incidir en la concienciación de los vecinos.

- **Olio bilketarako makinak ematen dituen ontzien garbitasuna bermatzeko neurriak hartzea eskatzen da.**

- **Garai herrira iristeko seinaleztapena hobetu errepide sarean, bai Bilbao-Donostia norabidean baita alderantzizkoan ere.**

  Udalak jarraitu dezala Aldundira eskaera egiten Garai herriak seinaleztapen propioa izan dezan proposatzen dute herritarrek.

- **Osakidetzaren kontsultategi zerbitzua.**

  Berriki Udalak jakin du Osakidetzak egun ematen duen kontsultategi zerbitzuak ez duela jarraipenik izango abendutik aurrera.

  Horren aurrean herritarrek eskatzen dute zerbitzuak jarraitu ahal izateko neurriak hartu ditzala Udalak Osakidetzaren aurrean.

- **Se solicita al Ayuntamiento que tome medidas para garantizar mayor limpieza de los envases que dispensa la máquina de recogida de aceite.**

- **Mejora de la señalización en la red de carreteras en el acceso al municipio de Garai, tanto en el sentido Bilbao-San Sebastián como en el sentido contrario.**

  Los asistentes consideran que el Ayuntamiento tiene que seguir insistiendo a la Diputación para que Garai figure en la señalización de acceso al municipio.

- **Servicio de consulta de Osakidetza.**

  El ayuntamiento ha sido notificado del cese a partir de diciembre del servicio de consulta que Osakidetza da actualmente (dos días a la semana).

  Los asistentes solicitan al Ayuntamiento que reclame a Osakidetza y promueva la continuidad de dicho servicio.